

BELDURREZKO ABENTURA

Orain dela urte asko, Iker izeneko mutiko bat bizi zen, bere etxea, baserri baten ondoan zegoen. Ikerren etxea, herri txiki batean kokatzen zen. Mutikoa bere gurasoekin eta bere txakurrarekin bizi zen. Ikerrek bi lagun min zituen, Jare eta Txomin izenekoak, hirurak oso ondo konpontzen ziren. Ikerri asko gustatzen zitzaizkion beldurrezko filmak, eta ez zitzaion gustatzen irakurtzea. Iker oso ausarta zen, jatorra ere bai, batzuetan beldurtia, oso alaia zen, eta kriston irudimen handia zuen. Iker ez zen oso altua, ezta oso baxua ere, begi berdeak zituen, ile marroia, ile motza eta kizkurra zuen, nahiko argala zen eta azala ez zuen beltzarana, ezta oso zuria ere.

Ostegun arrunt batean, Iker kalera joan zen, Txomin eta Jarerekin eta arratsaldea batera igaro ondoren, mutikotxoa etxera joan zen. Afaltzen hasi zen gurasoekin. Afaldu ondoren, Iker beldurrezko film bat ikusten hasi zen, eta 22:30etan ohera joan zen, mutikoak gauero amesten zuen. Gau erdian, baserri baldurgarri batean sartu zen, baina bera oso ausarta zenez, poz-pozik sartu zen. Bertan txakur eta txerri hegalaria zeuden, Iker beldurtu egin zen eta korrika eta oihuka hasi zen, zoro baten moduan, baina bat-batean ibai batera erori zen eta ibai hori oso baina oso beroa zegoen.

- Laguntza, ezin dut gehiago! - oihukatu zuen Ikerrek.

Ikerri monstruo batek heldu zion lepotik gogor eta Iker oso gaizki pasatzen ari zen, oso gaizki. Ikerrek urrutira kobazulo bat ikusi zuen eta poz-pozik baina beldurtuta aldi berean korrika joan zen, monstruo bera bere atzetik joan zen baina ezin zen kobazulotik sartu oso handia zelako. Ikerrek kobazulo horretan beste mila txakur eta txerri hegalaria aurkitu zituen, baina noski ezin zen atera kobazulotik, kanpoan monstruoa zegoelako, eta orduan, Iker korrika eta oihuka hasi zen eta laku batera buruz bota zen.

Ikerrek, burua ireki zuen, mutikoa kriston negarrak botatzen hasi zen, baina Ikerrek irudimen handia zuenez, benda batekin zauria estali zuen eta zer egin zezakeen pentsatzen hasi zen. Monstruoa joan eta gero, kobazulotik atera zen eta etxe sorgindu batean sartu zen. Etxe sorgindu horretan, bere bi lagun minak, bere gurasoak eta bere txakurra zeuden, baina guztiak sorginduta zeuden. Ikerren helburua, guztiei pozoia bat ematea zen, sorginkeria hori kentzeko. Ikerrek, lokatza, zelaiko hostoak, laranja zukua eta ardoa nahastu zituen, eta hamabost minuturen ostean pozoia lortu zuen, guztiei edalontzitik edateko agindu zien eta kasu egin zioten, baina hamar minutura... guztiak mutikoa jan nahi zuten eta bere atzetik korrika hasi ziren. Ikerrek etxe horretako atea ireki eta zoro bat bezala korrika joan zen eta beste guztiak bere atzetik. Ikerrek, bere buruko benda lurrera bota zuen, atzetik zoaztenak lurrera erortzeko baina ez zuen lortu. Orduan, mutikoak haragi zati bat bota zuen eta guztiak haragi zatia jaten hasi ziren.

- Nire planak beti funtzionatzen du! Onena naiz! Kar, kar, kar. - esan zuen Ikerrek lasai-lasai.

Ikerri grafiti bat egitea bururatu zitzaion eta lasai-lasai horretan hasi zen, mutikotxoak “onena naiz” esaldia idatzi zuen. Baina halako batean, polizia agertu zen eta Ikerri galdeketa bat egiten hasi ziren.

- Zergatik egin duzu grafitia? - Galdetu zuen poliziak.
- Ez dakit, aspertuta nengoelako. - Erantzun zuen Ikerrek.

Galderak egiten amaitu zutenean Iker korrika joan zen, eta bere atzetik sorginduta zeuden guztiak. Ikerrek ezin zuen gehiago, oso gaizki pasatzen ari zen. Baina bat-batean Ikerri kriston pixagura sartu zitzaion, eta orduan esnatu egin zen.

Iker pixa egitera joan zen komunera eta ohartu zen guztia amets bat izan zela, eta pixa egin eta gero, bere amarengana joan zen eta ikaragarritzko besarkada bat eman zion, eta hau guztia esan zuen Ikerrek:

- Ama, oso amets gaiztoa pasatu dut, gaueko beldurrezko filmarengatik izan da. Hemendik aurrera ez dut inoiz beldurrezko pelikularik ikusiko eta askoz ere gehiago irakurriko ditut liburuak.

Eta hortik aurrera Ikerrek ez zuen beldurrezko film gehiago ikusi, eta bere hobbyrik gustukoena liburuak irakurtzea izan zen. Hortik aurrera ez zuen amets gaiztorik eduki.

Hala bazan eta ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Ikerren liburuan.

Mago